Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

403

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 1ekoa, Berrikuntza eta Elikagaien Industrietako zuzendariarena, uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren babesean Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako elikagaien sektorean ikerketa, garapena eta eraberriketa bultzatzeko ematen diren diru-laguntzetarako deialdia finantzatzea helburu duen 2010. ekitaldiko baliabide ekonomikoen kopuru berria argitara ematekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako elikagaien sektorean ikerketa, garapena eta eraberriketa bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuan aurreikusitako laguntzetarako 2010eko ekitaldiko deialdia egin zuen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko abuztuaren 3ko Aginduak. Agindu horretako hirugarren Ebatziaren lehen atalak ezartzen du aurrekontu-kreditua, Euskal Autonomi Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura eta uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren 6. artikuluko a), b), c), eta d) idatz-zatietan aurreikusitako ekintzak finantzatzera bideratuta dagoena. Aurrekontu-kreditu hau 1.098.502 eurokoa da, kopuru horretatik, 798.502 euro 2010. urterako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 300.000 euro, berriz, 2011. urterako konpromiso-kredituari.

Bestalde, aipatu Ebatziaren 3. paragrafoak ezartzen du eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko horiek aldatu ahal izango direla, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren agortu ez den aurrekonturik izanez gero, eta laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Berrikuntza eta Elikagaien Industrietako zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

Ildo horretan, Berrikuntza eta Elikagaien Industrietako zuzendariak, egin beharreko izapideak egin ondoren, erabaki du hirugarren ebatziaren 1. idatzzatian ezarritako 2010erako kreditua 1.150.450 eurotan gehitzea.

Aurretik adierazitakoari jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikuluan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

403

RESOLUCIÓN de 1 de diciembre de 2010, de la Directora de Innovación e Industrias Alimentarias, por la que se da publicidad al nuevo importe de los recursos económicos para el ejercicio 2010 dirigido a la financiación de la convocatoria de ayudas económicas de apoyo a la investigación, desarrollo e innovación del sector agrario, agroalimentario y pesquero de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del Decreto 218/2010, de 27 de julio.

La Orden de 3 de agosto de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se convocan para el ejercicio 2010, las ayudas previstas en el Decreto 218/2010, de 27 de julio, de medidas de apoyo a la investigación, desarrollo e innovación del sector agrario, agroalimentario y pesquero de la Comunidad Autónoma del País Vasco, establece en el apartado 1 del Resuelvo Tercero el crédito presupuestario que, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, está destinado a la financiación de las acciones previstas en los párrafos a), b), c) y d) del artículo 6 del Decreto 218/2010, de 27 de julio. Este crédito presupuestario asciende a la cuantía de 1.098.502 euros de los cuales, 798.502 euros corresponden a crédito de pago para el año 2010 y 300.000 euros a crédito de compromiso para el año 2011.

Por su parte, el apartado 3 del citado Resuelvo establece que dichos importes podrán ser modificados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Directora de Innovación e Industrias Alimentarias.

En este sentido, la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias ha acordado, previa realización de los trámites oportunos, la ampliación de los créditos propios fijados en el apartado 1 del Resuelvo Tercero para el ejercicio 2010. Esta ampliación asciende a la cantidad de 1.150.450 euros.

De acuerdo con lo anteriormente expuesto, conforme con lo previsto en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de

eta 2010eko abuztuaren 3ko Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bidezkoa da adierazitako aldaketa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe

EBATZI DUT:

Argitara ematea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko abuztuaren 3ko Aginduaren hirugarren ebatziaren 1. idatz-zatian ezartzen den diru kopuruaren zenbateko berria. Agindu hau, uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren babesean egin da (2010eko irailaren 23ko EHAA, 184. zenbakia). Horrenbestez, 2.248.952 eurokoa izango da onartutako gehieneko diru-kopurua. Horietarik 1.948.952 euro 2010eko ekitaldiko ordainketa-krediturako izango dira, eta aldatu ez den 300.000 euroko kopurua 2011ko konpromiso-krediturako.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 1a.

Berrikuntza eta Elikagaien Industrietako zuzendaria,
AMAIA BARRENA TELLERIA.

la Hacienda General del País Vasco, así como en la Orden de 3 de agosto de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, procede la publicación el Boletín Oficial del País Vasco de la precitada variación.

Por todo lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

Dar publicidad al nuevo importe de los recursos económicos recogido en el apartado 1 del Resuelvo Tercero de la Orden de 3 de agosto de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se procede a convocar, para el ejercicio 2010, las ayudas a la investigación, desarrollo e innovación del sector agrario, alimentario y pesquero, al amparo del Decreto 218/2010, de 27 de julio (BOPV n.º 184, de 23 de septiembre de 2010), que asciende a la cantidad de 2.248.952, euros de los que 1.948.952 euros son de crédito de pago para el ejercicio 2010, quedando inalterada la cuantía destinada a crédito de compromiso para 2011 (300.000 euros).

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2010.

La Directora de Innovación e Industrias Alimentarias,
AMAIA BARRENA TELLERIA.